


KAPUSCINSKIREN
ERRETROBISOREA

Jon *Trontze* Etxebarria





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JON TXONTXE ETXEBARRIA

Kapuscinskiren erretrobisorea

azala: Malen Amenabar

Zapalduci

AURKIBIDEA

AUTOREA

BILDUMA

HITZAURREA

ATARIKOAK

MAPAREN GEOGRAFIA

NIRE BELDURRAK

HEGOALDERANTZ

LEHEN LERROA

OIHAL ZATI GARRATZA

ITSASOA DA

NORENAK

IPARRALDE HEGOALDEKO

BAZTERREKO BIDETIK

BILUZIK

URRUTI

HAURREN AHURREAN

DUNA

ARGI-ILUNAK

ZUREZKO BIHOTZA ZEUKAN

ITSASOAK DARAMANA

BADATOZ

BIDAIATUKO GAITU

HAUTACUPERCHEREN OIHARTZUNA

BESTE BAT

BAGAJEA

MAIZTASUNA

ITSAS UHINAK ETA HODEIAK

LAGUNAKO LAGUNAK

HARRIA ETA ORRIA

AFRIKAR XUXURLA

PARADISUA

SORTALDERANTZ
BIDE BAZTERRETIK
ELKARTASUN PORTUA
HAIENAK
ZINTZILIKATUTAKOAK
EZ GALTZEKO BERMEA
OKZITANIAR URMAELA
MUNDUA
LAU(R)AK
PIZKUNDEAK BERPIZTUTA
HARAGO
HIRIRIK GABEKO HIRIA
LABIRINTOAREN IRTEERA
FUSINATIK
ORDAINDU EGIN BEHAR DA
BASQUE
OSO GAITZA
EGUNKARIA
HURRENGO BATEAN
SARTALDERANTZ
ITZULERA KO BIDETIK
BIDEKO BIDEAK
ESATARIA
XEHEA EDO LARRIA
BI NORANZKO
MILANO-TORINO
TORINOKO ILARGIA
TUNELETIK
BIDESARIA
TXIRRI-STAPEKO MADARIKATUA
BIDAIARIREN BAT
KAPUSCINSKIREN ERRETROBISOREA
AZKEN HITZAK
ITZULERA

AUTOREA

Jon Etxebarria Rozas Txontxe naiz, getxoztarra, Euskal Filologian lizentziaduna eta Euskara eta Literatura irakaslea Hezkuntza publikoan. EGA aztertzaile eta euskara zuzentzaile ere ibili izan naiz. HIZNET Hizkuntza Plangintza eta Nazioarteko Ikasketak graduondokoak kurtsatuta dauzkat (titulurik ez). Euskalgintzan, sindikalgintzan eta nazioarteko elkartasunean jardun dut, bereziki internazionalismoan. Idatzi dudan lehenengo lan literarioa da hau, lehenago hainbat artikulu idatzi ditut (Argia, Berria eta Gara hedabideetan) eta aurkezten dizuedan bilduma honetako Urruti izeneko olerkia Ibon Zubielaeren Inventario de la piel/ Azalaren bilduma poesia-bilduman argitaratu da.

BILDUMA

Aurkezten dizuedan poema-bilduma 2017an egindako lau hileko bidaiaren ondorio da. Orain hiru urteko udaberrian bikotearekin eta bidean bi urte bete zituen semearekin autokarabanaz bidaia luzetxoa egin genuen, Andaluziara, handik Kanarietara ferryz, uhartez uharte ibili ostean penintsulara itzuli ginen, Herrialde Katalanetara gero, Okzitania, Italiako Toscana, Venezia eta azkenik Esloveniarraino iritsi ginen etxera bueltatu aurretik. Orotara 8.505km eta 1.595 itsas milia egin genituen.

Horrela, bildumako olerkiak bidaia bati buruzkoak dira, bideari buruzkoak eta bidaiaren ezagututako natura, hiri eta giza paisaiak islatzen dira. Bestalde, bizitza, bidaiak, turismoa, migrazioa eta zapalkuntza dira agertuko diren gai batzuk betiere jendartearen eta munduaren ikuspegi kritiko batetik jorratuta.

Olerkiak xumeak eta heterogeneoak dira, horietako asko narratiboak dira eta hainbat idazleri (eta bidaiariri) egiten diete erreferentzia, batez ere atzerrikoak, batzuk klasikoak dira eta beste batzuk garaikideak, esaterako, Dante, Twain, Byron, Storni edo Mistral, Beustrini eta Sarrionandia. Horien artean Kapuscinski da aipagarriena, presentzia handiena duena delako eta kazetari eta idazle poloniarrari erreferentzia egiten dion poema batetik hartu duelako izenburua lanak.

Azken finean, bitakora baten olerkiak dira, bazterreko bideetatik eta bide bazterretatik egindako bidaiarenak eta road trip poetiko bat osatu nahi dutela esan genezake.

HITZAURREA

Ez dakit oso ondo zer garen eta zer ez garen. Badakit, ordea, zerk egiten gaituen: bideak. Eta bidea bada egiten gaituena, zergatik ez uste izan gu ere bide garela? Askotarikoak, norberak bereak, olatuak denak diren moduan desberdin, eta hostoak, eta ametsak.

Jon Etxebarria Txontxek begirada ezin ederragoan eskaini digu berak egindako bidaiaren berri. Barrutik kanpora, eta bueltan berriro ere abiaburura. Zirkulu inperfektu bezain biribilean eroan eta ekarri gaitu sentazioen bide-zidorretatik eta apaltasun poetiko miresgarrian eskaini digu bidaia fisiko, pertsonal eta literarioa. Kartografia pertsonala, mapa biziak. Finean, bizitzaz ari zaigu Jon, bizitzaz eta maitasunaz, elkartasunaz ari zaigulako, eta elkartasuna maitasuna delako, mugagabea, baldintzarik gabea. Nor diren eta nor izan nahi luketen herriei zein pertsoneri buruz ari zaigulako, norbera den moduan aintzat hartu eta onartzea (edo oldartzea) ere maitasun ekintza delako; zintzoa eta zorrotza. Eta bidea, emankorra izango bada, maitasun bidea besterik ezin daitekeelako izan, eskuzabala eta aurre juzgurik gabea.

Bideak liluratzen gaituenean, bideak bidetik ateratzeko gonbitea egiten digunean, berdin digu nora joan, edo nora ez joan, hitzak berak bihurtzen dira-eta bide, poesia bera bihurtzen da Urrutikoetxea azaletik azalera sentitzeko geografiarik ederrena, indartsu izan beharrean, indartsu sentitzeko adorea ematen diguna. Google maps-ek fitxatu gabeko bide zidorretan ezagututako bidaide inprobisatuen azaletik arnas egiteko aukera ezin hobea: Jay Moriartyen itsasoak, Lord Byronen herrentasunak, Danteren infernu-zeroak eta Mark Twainen abenturak. Eragozpena eta oztopoak ere berezkoak ditu bideak, baita nekeak ere: aldi laburreko adiskidantzan erraz disimulatzen diren horiek; zeruaren eta itsasoaren arteko bisagrak, batzuetan, kirrinka egiten duela konturatzeko nahikoa den ...baina soil bat; bandera astunegien zimurretan menperatuen orbanak sentitzeko moduko ibili zauria; norbere ametsak inoren amesgaizto, eta alderantziz, izan daitezkeela onartzeko adorea. Horiek ere badira Jonen bideak, baita gutako askorenak ere, itsasoetan itotzen garen bakoitzean sentitzen dugun itolarri hori bezala, ohol bustiak bizitza desjabetuak ezin eutsi dituen mundu berri baten aldeko esperantzaren azaleran. Hori dena da bidea, eta kostaldea, eta naufragioa; hori dena da bizitza, eta heriotza; Puerto de Santamariako selfiea, koloretan egonagatik ere zuri beltzean

ateratzen den argazkia, ...leku orok daukalako alderen batean bere bazterra, eta pertsona orok bere bestea.

Edozein denbora bazterretan omen dago paradisia, Puertito de la Cruzen, Adiranen, Luccan, Venezian edo Ljubljanan. Eta baita gure mendi, badia eta kaleetan ere, ez baita atzerriratu behar bidaiaria izateko, bidaiatzea itzultzea baita, eta etxera bueltatzen garen bakoitzean berdeagoak direlako gure mendien hegoak, ...freskoagoak gure lotsaren gerizpeak. Etxera bueltatzea abiatu gineneko bidaia beraren beste atalburu bat baizik ez da. Hori bai, jada ez gara lehengo berak, Jon ez da autokarabanan sartu zeneko bera. Ni ere ez naiz lehengoa, berarekin batera bide berriak amesteko eskifaiaren parte sentiarazi nauelako, eta nahiz eta Kapuscinkiren erretrobisoreak geografia nozio subjektiboa dela iradoki, erretrobisore berean islatzen dira ere ortzemuga berriak.

Horregatik, beti soinean daramagu motxila. Eskerrik asko, Jon Txontxe.

Mikel Etxaburu Osa

*Egizu otoi bidea luzea izan dadin,
menturaz betea, ezagutzaz betea.*

Ithaka, KONSTANTINO KAVAFIS

ATARIKOAK

Bidaiatzea etxetik joatea da

GABRIEL GARCIA MARQUEZ

MAPAREN GEOGRAFIA

Mapa gora adi jarri dut
umetako gerra jolasak
hesiak fronteak
kontinente binarioa
mendebala ala ekialdea
ez iparririk ez hegorik.

Mapari buelta eman diot
behera adi jarri dut
biluzik
hamaika forma
ez marrarik
ez biderik.

Mapa ahoz gora jarri dut berriro
gaztetako gatazka jokoak
nazio gardenduak
elkartasun konspirazioak
bazterreko langileak
bilera isilak, kongresu isilduak.

Mapari buelta eman diot
behera adi jarri dut
biluzik
hamaika forma
ez marrarik
ez biderik.

Mapa gora begira jarri dut berriro
guraso garaiko bidegurutzeak
eta gure bidea?
Geografia zer den
ez dut argi
nora joango garen ere ez.

NIRE BELDURRAK

Kirmen Uribek alabari gomendatutakoa

neure eginez

onartu egingo dut beldurra

beldurra bidea luzeegia izateari

beldurra bidea labur gelditzeari

beldurra haurrak etxera itzuli nahi izateari

beldurra haurra etxera ez bueltatzeari

beldurra bikotekidearekin larregi hitz egiteari

beldurra bikotekidea eta biok mutu lotzeari

beldurra begiak ezin biltzeari

beldurra ezin esnatzeari

beldurra motelegi ibiltzeari

beldurra azkarregi joateri

beldurra Raymond Carverren beldur guztiei ere bai

eta biharamunean

zehaztu gabeko bidea daukat zain.

HEGOALDERANTZ

Bidaiatzea poeta sentitza da

GABRIEL GARCIA MARQUEZ

LEHEN LERROA

Nola idazten da lehen lerroa?

Egunerokoa osatu nahian izan liteke,
bat-bateko uzkurdurek
ideiei bultza eta bultza
egiten dietela.

Urteetako hitz kateatu gatibuen oihuak
kaiolako ertzen aurka talka
ezin kabitu dabiltzanak
askatu nahian behar bada.

Gaueko belztasunera kiribilduta
lan-tresna zorroztuta
kolpez kolpe esku leunak zailduta,
orbanez lohituta apika.

Agian barreneko minetatik erauzita ikusiko du argia lerroak koska, kostata,
barealdia amaitutakoan,
ekaitz gordinari aurre egin dion lemazainaren antzera.

Ez dakit nola idazten den lehen lerroa
baina Kapuscinskiri jarraiki
poesia da bidea.
Hala bedi!

OIHAL ZATI GARRATZA

Herkulesen Dorreetatik harago
Anibalen elefanteentzat meharregiak diruditen
antzinako Gádirreko karrika karratuetatik barrena,
infinituraino itxaron behar
ez duten kale sasiparaleloak,
bihurriak denak.
Ogibide zaharrak zein gazteak,
nahasmen kontrasteak,
eraikin ofizial andana
banderek abisatuta.

Manuel Machadok zioen
argitasun gaziaren hiriko
bandera gatzatu horiek,
baina,
ez didate arreta deitu,
argirik gabeko kale kantoi mingotseko tintoreria zaharrear
behargina lisaburdinaz ferekatzen ari den horrek baino;
zimurrak galdu berri dituen
marradun oihal garratz angeluzuzena
besterik ez den horrek.

LURMUTURRA

Europako hego muturra
agian afrikarragoa
europarra baino
piratena bezain mugalariena.

Itsaso biren loturaren testigu
mundu biren banaketaren gatibu
bertan ametsak sortzen ditu haizeak
bertara hilotzak ekartzen ditu korronteak.

Bidaia askoren hasiera
bidaia gehiegiren amaiera
amestien utopia
amesbakoen hipermetropia.

ITSASOA DA

Maitasuna eta emozioa baino ez da itsasoa

JULES VERNE

Urruneko mintzaldi mutua,
bazterreko begirada itsua,
eztiki hurreraturiko esku bihurria,
alderrai dabilen mingain zirria.

Goizeko izara zimurtua,
luzatutako gau argitsua,
erauzitako arroparen alkohol lurrina,
bat-bateko fereka geldiezina.

Brankatik ikus daiteke itsasoa dela maitasuna:
doana eta datorrena,
dena eman eta dena ken dezakeena,
bakarra baina beti desberdina.

NORENAK

Jay Moriarityk esan ei zuen

denok gatzela itsasotik

baina denok ez garela itsasoarenak.

Itsasoa bada maitasuna

maitasuna bada itsasoa

denok gatz maitasunetik

baina denok ez gara maitasunarenak.

Norenak ote besteok?

IPARRALDE HEGOALDEKO

BAZTERREKO BIDETIK

Bidaiatzea zoro z janzte da

GABRIEL GARCIA MARQUEZ

BILUZIK

Atlantiar itsasertz metodikoak
oin hutsak
estali dizkit
agur esan diote
oin azpiek
hondarraren epeltasunari.

Uhin erkin baten azken hatsak
larrugorritu nau samatik behera
beste nudisten gorputz zoroekin
berdinduta egoteak lotsarazi nau
gardendutako besteen iritziek eta epaiek
beldurtu egiten naute.

Bazterreko bideko ufada aldakorrek
enegarrenean
aurreiritziak eta ustebeharrak
erantzi dizkidate
larrubiziari
burubizia erantsiz.

URRUTI

Igor Urrutikoetxea Bilbaori

Urrutira joaten zinen beti,
kale amaieran dagoen
hemendik milaka miliatara eroan zintuen ozeano bera
maiz zeharkatzen zenuen
baina hurbilen zeundena zinen.

Beharrean bidaiaria,
aisian bidaztia,
gertukoentzat beti zeneukan astia.
Bide bazterra astindu beharra zegoenean
astintzen zenuen goia eta azpia.

Ñimiñoena zein itzelena,
hemengoa nahiz hangoa
ezagutzeko beharra,
itzelezko jakin mina
zeneukan kontrolaezina.

Zure patrika txikia bidaietan inbertitzen zenuen
betiere ekartzeko
motxila bete bizipen
motxila bete aldarrikapen.

Bidaiak eroan zintuen
ortozik baina botak basaz lohituta,
urruti utzi gintuzun zure argitasunaren umezurtz.
Alabaina, bidea utzi zenigun,
asago bezain paraje,
bazterreko bidea topaleku.

Oraingoan arrezifea izan omen zen
hiri desordenatuak elkartu gaitu
'Klase sindikatuak' irakurri dudanean
kale zaildu baten plaka zailduagoan.
Hurrengora arte, kamarada.

HAURREN AHURREAN

Maitasuna baldintzarik gabekoa da
maitasuna ematea da
maitasuna dena da
maitasuna mugagabea da
maitasuna hori guztia
izanagatik ere edozein
haurren ahurrean kabitzen da.

DUNA

Neuk ere amestu dut Kapuscinskiren iceberga
baina neurea duna bat da
dena kiskaltzen duen itsas desertuan dago
geldi
bertan ere ez dago gizatasunik
baizik eta desjabetuen ehiza.

Duna magalean
haize sugarrak biziraute ahaleginetan ari direnak
eguzki eztenek baino gehiago mintzen ditu.

Negar egin dut
halere nire urak ez dira haraino ailegatu
bidean idortu dira.

Bizirik dirauten gorpuei erreparatu diet
haizeari adi ikusi dut asko
hortzak erakutsiz
eutsiz
irriño keinua sumatu diot hainbati:
desesperazioa ala esperantza?

ARGI-ILUNAK

Argi txintxa batek
isiltasun ilunaren atepetik
marboil urdindua biribildu dizu.

Argi txintxa batek
eta segituan beste batek
ahantzurak instant bitan argitu dizkizute.

Argi txintxa batek
gelditasun ilunaren atepetik
zeru gortua hurbildu dizu.

Argi txintxa batek
eta segituan beste batek
ametsak instant bitan eten dizkizute.

Puertito de la Cruz puntako farozain bihurtuta
argi-ilunen mundua
dantzan dabilkizu.

ZUREZKO BIHOTZA ZEUKAN

Zurezkoa zeukan bihotza
hasiera ere ostu zioten
antzinako Agaldar herriari egin zioten legez.

Zurezkoa zeukan bihotza,
sano sendoa
baina jagon behar zena.

Zurezkoa zeukan bihotza,
leuna
baina kolpe bakarrez apurgaitza zena.

Zurezkoa zeukan bihotza,
maitasun suaz
erre egiten zena.

Zurezkoa zeukan bihotza,
maiteminek zizelkatuta
ertzak biribildurik zituena.

Zurezkoa zeukan bihotza,
gaur monotoniaren kresalak
zimelduta duena.

Baina oraingoan, aurrekoetan ez bezala,
bernizarekin ez da nahikoa izango
tolesdurak berdintzeko.

Zurezkoa zeukan bihotza
gaur Galdar deitutakoaren adreiluzkoak diren mendi zipriztin
koloretsuek jatorrizkoen garaian izan zutenaren modukoa.

ITSASOAK DARAMANA

Uhinen dantzaldien mendeko Poris de Abona
arrantzale etxolak
itsas bazterreko haitzen sabelak dira

egunero legez leihotik begirada itsasoratu
aulkian dagoen arropa karratua jantzi
makilaren beheko muturra zapi laukidunaz zorroztu

goiko muturra ezkerreko eskuaz maitekiro oratu
oinak abarketa epeletan kokatu
eta abiatu egin da

kalatxoriak lekuko kantari
mosaikodun harjauzia jaitsi
eta espartinak erantsi ditu

ortzia jokaleku
hodeiak eguzki herabea estali ez estali dabilta
eguneko itsasargi bilakaturik

orain argitsu, orain ilun
aldizkako epeltasunak ezin dio
oinazpietatik eskalatzen dabilkion hezetasunari aurre egin

gauean zehar itsas prentsak trinkotutako hondarra behatuta
makilari dantzarazi dio, emeki bezain tinko
egunero desberdina den betiko esaldi galkor bera izkiriatu du

ortzimugari adi bihotzetik arnas itsua egin
eta etxerantz egin du atzera zapia uretara begira doakiola
itsasgorak erantzuna ekarriko dion esperantzaz.

BADATÓZ

Tourists go home,
Refugees welcome
HORMA IZKRIBUA

Badatoz, badoaz,
Puerto de la Cruzeko kale hingatuetan barrena
eta ez dira bueltatzen.

Badatoz, badoaz,
plastikozko sartu-irtenak
eta ez dira bueltatzen.

Badatoz, badoaz,
letra lodidun txokoak begiratu
eta ez dira bueltatzen.

Badatoz, badoaz,
gerizpetako putzuak saihestu
eta ez dira bueltatzen.

Badatoz, badoaz,
gure bazterren arimen koloreak lapurtu
eta ez dira bueltatzen.

Badatoz, badoaz,
moda jatetxe desproletarizatuetan bazkaldu
eta ez dira bueltatzen.

Badatoz, badoaz,
gure auzokideen bizileku zirenetan gau bakarra egin
eta ez dira bueltatzen.

Badatoz, badoaz,
kukuak ez dakarkiguna ekarri arren larregi kendu
eta ez dira bueltatzen.

Baina nor naiz ni ezer esateko,
jabea lotaldian dagoela
leihotik begira ari den txakurra baino ez naiz.

BIDAIATUKO GAITU

'Bidaia' aditzaren objektu ezkutua
bilatzen ari garela
bidearen jostunak
arauak desobeditu
eta sintagma aldatu digu
osagarririk gabeko subjektua zena
subjekturik gabeko osagarria da.
Orain arte guk bidaiatu dugu
hemendik aurrera gu bidaiatuko gaitu.
Nork baina?

HAUTACUPERCHEREN OIHARTZUNA

Vacaguaré
GUAYANFANTA

Kanariarra izan nahi dut
baina belaontzi erraldoietan etorri zirenek
oraindik ere ez didate uzten.

Binbatxea izan nahi dut
itsasoari besarkatuta
bizi naizelako.

Mahoreroa izan nahi dut
nahiz eta nire herriaren jatorria misterioa izan
Homerok zorioneko herrizat gintuelako.

Mahoa izan nahi dut
nire zainetan oraindik irakiten dabilen arbasoen laba daramadalako.

Gomeroa izan nahi dut
gure jatorrizko hizkuntza erauziagatik ere
txorien moduan ere mintza gaitzkeelako.

Benahorita izan nahi dut
emakume zein gizon, zahar zein gazte, bakean zein gerran,
heriotzari beldurrik ez diogulako.

Guantxea izan nahi dut
akabatu edo esklabo bihurtu gintuzten arren
gure zazpi izarrek beti berpizten gaituztelako.

Kanariarra izan nahi dut
topikoen portua atzean utzita utopiarantz noalako,
baina aireko nao erraldoietan zatozenok ere ez didazue uzten.

BESTE BAT

Beste kolore bat amatatuta da
bazterreko herri batean
Agulon entzun zen azken koplak nola.

Beste hizkuntza bat lehortu berri da
bazterreko herri batean
Aguloko ur-jauzia nola.

Arrazoia zeukaten jatorrizkoek:
lurrak isiltzen direnean
urak hustu egiten dira.

BAGAJEA

Gomerako San Sebastianen ikusi zaitut berriz
platano eta gazte abizen adina sarraski
garraiatzen ikusi dituen portuko sarreran
esku leun batek noiz helduko zain.

Hainbat belaunaldiren lekuko izanagatik,
ez duzu lortzen baten bizipenak tolestea
ordena jakinean jarri ahalik eta gutxien okupa dezaten
eskuragarri egon daitezten.

Azala zimurrez josita edukiagatik,
ez duzu ikasi atxikirik doazen
berunezko sufrimenduak ondo kokatzen
gehiegi pisa ez dezaten.

Kilometroak eta miliak ibiliagatik,
zirrikitu bihurgunetsu bezain estuak
baino ez dauzkazu libre
paper birziklatuzko ametsak sartzeko.

Azkenean betiko legez kasik ezin zarratuta
ez duzu lekurik eduki
poliespanezko ondasunetarako
eta ostera ere aurkako noranzkoari ekin behar.

Pedro Lezcanorena, behintzat, larruzkoa zen,
baina zu,
enegarrenez desplazatu behar duzuna,
kartoizko maleta zara.

Hala ere,
bideak ikasarazi dizu
kontua ez dela indartsua izatea,
indartsu sentitzea baizik.

Gomerako San Sebastianen ikusi zaitut ostera ere
platano eta gazte abizen adina sarraski
garraiatzen ikusi dituen portuko sarreran
esku leun batek noiz helduko zain.

MAIZTASUNA

Olatu bat hautsi da.

Bat

bi

hiru

lau

bost

sei

zazpi

zortzi

bederatzi

hamar

hamaika

hamabi

hamahiru

hamalau.

Beste olatu bat.

Uhinen arteko tarteari maiztasuna deritzogu,
zenbat eta segundo gehiago orduan eta olatu hobea.

Bat

bi

hiru

lau

bost

sei

zazpi

zortzi

bederatzi

hamar

hamaika

hamabi

hamahiru

hamalau.

Beste olatu bat.

14 segundotan ume bat

ekarri nahi duela erabaki dezake familia batek.

Bat

bi

hiru

lau

bost

sei

zazpi

zortzi

bederatzi

hamar

hamaika

hamabi

hamahiru

hamalau.

Beste olatu bat.

Berekoikeriak balizko haur bat erreskatatuko du

baina tarte honetan zenbat ume eraman ditu kapitalismoaren tsunamiak?

Bat

bi

hiru

lau

bost

sei

zazpi

zortzi

bederatzi

hamar

hamaika

hamabi

hamahiru

hamalau...

ITSAS UHINAK ETA HODEIAK

Itsaso, nik zu lakoa nahi nuen izan

ALFONSINA STORNI

Itsasoak olatuak gordetzen ditu
harik eta itsasertz egokia aukeratu arte.

Itsasoak olatuak gordetzen ditu
harik eta surflari asegaitzei eskaini arte.

Itsasoak olatuak gordetzen ditu
harik eta hondar defendagaitzaren aurka oldartzen diren arte.

Orduan aparra zeruratzen da
eta lehorreko haizeak mugitzen ditu
hodei sortu berriak
marboil batetik bestera.

Baina kalma zuriko egunetan
nork mugitzen ditu
ortzimugako sekretuak
estaltzen dituzten ametsak?

LAGUNAKO LAGUNAK

Euri lotsatia erori da gauean
zazpi neba-arrebetatik
ederrena ei den uharte txiki orlegian.

Umea kalera atera da
beste haurren hots jostagarriak bilatzen.
Bertako bi familia daude hamaiketakoa egiten.

Jatorrak, xumeak,
eskuzabalak,
autentikoak.

“Euskaldunak? Bai? Pertsona onak, hortaz.”

Txerriki errea jatera gonbidatu gaituzte,
bat egin dugu, nahastu egin gara.
Lagunartean sentitu gara aspaldiko partez.

Barreak eta algarak,
jana eta edana,
berba arin andana.

“Badaki umeak hitz egiten? Apur bat bai? Euskaraz baino ez! Tira ondo deritzot dialektoak-eta
mantentzeari, baina...”

Gaurko lagunak jatorrak, xumeak,
eskuzabalak, autentikoak izan dira
Laguna de Barloventoko lagunak, baina...

HARRIA ETA ORRIA

Adiraneke herriko plaza arratsaldez,
lautada ikaragarria mendiek eta harriek besarkatuta,
enbor zabaleko arbolapean
haragizko zuhaitz zaharrak diren edadetu ugari.

Lorategiko petrileko erpinean
harri biribil anonimo batek zapaldua
orri bat dabil giroarekin jostari.

Beltzez jantzitako pertsona lurrindu berria
hurbildu zaio harriari
eztarri zailduen txioak isildu dira bat-batean
eta begiratu diote adi-adi.

Harri hotza hoztasunez jaso
orri askatua leunki tolestu
eta beste orri berri bat paratu du harripean.

Agureetako bat altxatu da,
poliki-poliki lorategi bazterrerantz abiatu da
garabi herdoilduen moduan makurtu
harria higitu eta orria irakurri du.

Arratsaldero egingo du osteratxoa
harik eta harri higituak
haren izena eta argazkia daramatzan orritxoa estutu arte.

AFRIKAR XUXURLA

Eguzki urreztatzailearen azpian dago eserita
garagardoa dauka mahaitxo gainean
ondoan alemanez eta ingelesez idatzitako karta.

Bazterreko ebanozko saltzailea hurreratu zaio
trago luzea eman dio zerbeza izerditsuari
zeruaren eta itsasoaren bisagran galdu du begirada.

Kaleko saltzaile gardena aldendu zaionean
hondar zilartua ere bertara inportatu duen haizeak
Afrikan zaude xuxurlatu dio belarrira.

PARADISUA

*Paradisua unek dira, ordu bat,
minutu batzuk, olatu bat.*

IÑIGO URDIÑAGA

Uharteetako bazterreko
bide biluztuetan barrena
asfaltoa itsasotzen denean
izarrak lemazain dira
orduan edozein denbora bazterretan
dago paradisua.

SORTALDERANTZ

BIDE BAZTERRETIK

Bidaiatzea mundutarra sentitzea da

GABRIEL GARCIA MARQUEZ

ELKARTASUN PORTUA

Bizirik irauteko astintzen ditugu hegoak,
bizirik irauteko gara etxetik kanpo.

EKHINE EIZAGIRRE

Puerto de Santa Marian lehorreratu gara
eta autokarabana barrutik atera dut
bide bazterreko geldialdi honen argazkia,
badaezpadakoa,
kontu handiz,
atzeko (des)eraiki(n)a ondo ikus dadin.

Eguneroko eta gaueroko borroka portua,
batelak ametsetan baino ez dauzkan portua,
kresalik gabeko adreiluzko mendeku portua,
astebururo elkartasun olatuek astintzen duten portua.

Puerto de Santa Marian lehorreratu gara
eta autokarabana barrutik atera dut
bide bazterreko geldialdi honen argazkia,
selfiea,
koloretan egonagatik ere
zuri beltzean atera den fotografia.

HAIENAK

Haien banderen zimurretan
gure orbanak dakuskigu.

Haien ereserkien melodietan
gure jendearen oihuak dantzuzkigu.

Haien garaikur distiratsuetan
gure itzalak dautza.

Haien diskurtso hutsaletan
gure ahanzturak gogora dakartzagu.

Haien ametsak
gure amesgaiztoak bihurtu dira.

ZINTZILIKATUTAKOAK

Bazterrekoak izan nahi dugu,

baina ez baztertuak

HORMA IZKRIBUA

Eraisten ari dira hiriburuetan
bizilagunen ikur desberdinen ortzadarrak
oharkabeko katarsia hezeak
auzokide baten ertzen bide-orriak izan daitezkeenak.

Eraisten ari dira hirietan
auzokoen puzzle inperfektu nahasiak
amorrus urkatutako ale desordenatuak
etxeko pertsonaien izaeren igarkizunak izan daitezkeenak.

Eraisten ari dira herri handietan
klase sozialen modelo uniformeak
akitutako barnealde irauliak
ezkutuko nontzeberri salatariak izan daitezkeenak.

Eraisten ari dira
hala leihoetan
nola balkoietan zintzilikatutakoak
txukuntasun modernoaren izenean.

Eraikinak azaletik berdindu dituzte
berdintasun modernoaren bila
liburutegietako liburu mosaikoak
apalategi hits huts bihurturik.

Julià de Jòdaren desertorearen El Ravalen ere
zintzilikatutako arropa eraisten ari diren honetan
bazterreko bideetara jo beharko du
gobaden errealismo magikoa irakurri nahi duenak.

EZ GALTZEKO BERMEA

Arrasti batean herabe hurbildu nintzaizun
lekua utzi zenidan trukean ezer eskatu gabe.
Zure hamaika zapiek gaua koloreztatu zidaten
zure adar baten pean topatu nuen grinentzako aterpea.

Arin pitzatu zenizkidan arrakalak
jabetu nintzenerako maitemindurik nindukazun.
Zure sugarrek agerikoen itzalak ikusarazi zizkidaten
pozaren eta sufrimenduaren balantzan zabukatu ninduzun.

Baztertua nahi zaituzten honetan,
bazterreko bideetatik jarraituko duzu
bide ertzak astinduz bide berriak eraikitzeko.

Herriaren sustrai sakonenetatik hazia
iraultzarako agortezina den iturburua,
bidea(n) ez galtzeko bermea zauzkagu herri mugimendua.

OKZITANIAR URMAELA

Parlez français/ Soyez propre

ARAMITSEKO ESKOLAKO KARTELA

Paisaia ele bietan dakusat
baina ele bakarrean dantzut
olio frantsesak estaltzen duen
okzitanieraren ur estuetako
hainbat hiritan.

Mistralen alaba Mireio
ezagutu behar izan dut
Lassaqueren solstizioa probesturik
diglosiaren geruza tarte baterako pitzatu
eta okzitaniar urmaeleko uretan lohitzea lortzeko.

MUNDUA

Antzina gure mundua ez zen biribila
hodeiertza zen infernurako erpina, beldur gorenen amildegia;
forma esferikoa ezin topatu nabilkio
nahiz eta Pisako dorrea gorantz biribiltzen nabilen.

Largabista bidez begiratuta ere
ertzak dira nagusi
mugetan bereziki
simetria kapitalak dauka hila.

Aspaldi mundua ez dela biribila
eta Pisako dorre makurra ere ez
nahiz eta kamuflaje uniformedunez inguratuta dagoen.

Mundua biribildu zuen euskal nao gaztelartuaren
aztarna gordina ikus dezaket dorrearen goialdetik
beste mundutarren mundua zulatu zuen antitesia.

LAU(R)AK

Luccako eskola pareko txinboetako
gerizpearen su-etenean
historiak bildutako hiriaren dorre garaiek
launa aldiz astindu dute bakea.
Umeak karrakan azaleratu dira paper bana eskuetan
gurasoen moilaren peskizan.

Baina gaurkoan atzokoan ez bezala
ume gehienek ez dakarte irria iltzatuta.
Italiar selekzioko elastikoa daroan
umearen amak besarkada eten du
paperean 4 zenbaki gorria begiztatu duenean
eta italiara alemanieratuan txilio egin dio.

Amak umea tiraka eroan du txinboetatik
eta umeari jarraiki doakion paperezko atoi lauan ere
elastiko urdinaren atzealdeko 4 zenbakia ikusi dut.

Nire umearen jolaserako gogo zenbaezinari begiratu diot.
9,8 metro segundo koadroko abiaduran
amildu zaizkidan 4 malkoek ere jo dute arrastiko laurak.

PIZKUNDEAK BERPIZTUTA

Duomotik elkartzut doan karrika hartu dut
gerizpetatik arnas bila,
italiera aditu dut berriro
turisteraren oihartzunen gainetik.

Ate baten koskan eseri naiz,
Sarriren olerki bilduma
atera dut
bizkar zorrotik.

Aurrez aurre daukadan adreiluzko lekuko iraunkorrek
erantzun dio liburuaren galderari
paretan itsatsitako paperean zizelkatutako poema anonimoa
Movimento per l'emancipazione della poesia sinatuta.

Poesia berpiztuta altxatu egin naiz,
Danteren etxea dion atea bizkarrean utzita
Pizkunde erdiguneko infernutik atera
eta Arnorako bideri ekin diot.

HARAGO

Leku orok dauka alderen batean bere bazterra
labirintotik harago egon ohi dena.
Pertsona orok dauka bere bestea
labirintotik harago egon ohi dena.

Errairik gabeko bideetan
bai muinean
bai geruzetan
uste baino hurbilago dagoen

ustezko urruntasunean
bideak tolesten direnean
zerua itsaso bilakatzen denean
errazago azaleratzen da bazterra.

Leku orok dauka alderen batean bere bestea
labirintotik harago egon ohi dena.
Pertsona orok dauka bere bazterra
labirintotik harago egon ohi dena.

Erdibitzen nauen
ibaiaren beste aldean
ezagutuko al dut
neure Oltrarno?

HIRIRIK GABEKO HIRIA

Vaporettoz hurbildu gara
hiririk gabeko hirira,
izandakoaren malenkonian
flotatzen dago
Mark Twainek zioen Adriatikoaren neskalgun alarguna.

Behin lehorreratuta
eguzki errainuek
hiribakoaren ilunak ikusarazi dizkigu
arrakalak eta zimurrak agerian
idorrak eta hezeak.

Alabaina
iluntzean aurkitu gaituen ilargi beteak
urdindutako marmolak zuritu dizkio
eta Lord Byronen hiri kutuna
azaleratu da behin-behinean.

LABIRINTOAREN IRTEERA

Lecu on bat da Escocia

obeagoa da Venescia

JOAN PEREZ LAZARRAGA

San Marco ederregia maskaradunez mukur,
Elsinor lurrinak bustia.
Gondolen asimetriaren legearen aurkako korrontean
hamaika zubitara,
karabelen lehorreratzearen gaineko
herri galdeketa ez ofizialaren isla
atrakatuta daukan ataria.
Corto Maltesen ghattoko
eraikinaren goiko pisuko leihoan
gondolieri ez deserriratu baten
arropa zintzilikatuta.
Labirintoaren irteera apika,
uretara makurtu
eta bat-batean maskaradun batekin topo egin dut.

FUSINATIK

Fusinatik begira ari natzaio
itsasoaren mailak gora egin duela ematen du
ez dakit Venezia Historiaren itsasoak irentsi nahian dabilen
edota dolu-minak jota Veneziak Stornirena egitea erabaki duen.

Fusinatik galdezka ari natzaio
zer gertatzen ari da?
zer daukazu?
zurera itzuliko zara?

Fusinatik begira ari natzaio
kaio ilunegia itsasertzean pausatu da
axolagabe begiratu nau
eta "inoiz ez" esan dit venezieraz.

ORDAINDU EGIN BEHAR DA

Ordaindu egin behar da
Izolako hondartzako dutxa erabiltzeko.

Ordaindu egin behar da
Luccako hiribilduko komunetan txiza egiteko.

Ordaindu egin behar da
Sant Pere Pescadorreko ibaian arrantza egiteko.

Ordaindu egin behar da
Cadizeko edozein kaletan autoa aparkatzeko.

Ordaindu egin behar da
Corralejoko gasolindegietan txorrotako ura hartzeko.

Ordaindu egin behar da
Euskal Herrian euskalduna izateko.

BASQUE

Letra batek,
batzuetan bik edo hiruk gehienez,
muga ditzakete familia bat.

Letra batek ezar
diezaioke familia bati
bide osorako barra kodea.

Bohinjsko Jezero laku ertzean
sei letradun silaba bakarreko hitza
nahikoa dugu matrikulako letra bakar horri aurre egiteko.

OSO GAITZA

Oso gaitza egiten zait
baina behin lortu nuen,
laukizuzen koloredunek zipriztinduriko
moketadun gela zuri lasaian
arnasketari adi
begiak itxita argi biribilari begira.

Oso gaitza egiten zait
baina batzuetan lortu dut,
ohol luzearen gainean arraunean
itsasoak kulunkatzen nauela
haizeak esanahi gabeko kontu ezagunak xuxurlatzen dizkidanean.

Oso gaitza egiten zait
baina askotan lortu dut,
larru jolasetan
narrasti zizpuruak
lapurtzen dizkidatenean.

Oso gaitza egiten zait
baina zeuk biziarazi didazu,
lehenaldia dagoeneko ez dagoela
geroa oraindik ez dela
denboraren kate luzea orainaren katebegiz osatuta dagoela.

Oso gaitza egiten zait
baina zurekin
orain irria, orain negarra,
orain gosea, orain kaka,
orain musuak, orain jolasak,
gelditzen ditut gogoaren kanpandorreko orratzak,
ez dut salto egiten kapituluaren amaierara,
ez nabil ez haizetakoari ez erretrobisoreari adi,
bizi dut oraina,
hementxe, oraintxe, baltsamatutako Škofja Lokan
zuri loa eragiten.

EGUNKARIA

Merkatuaren sarrerako bazterra
edozein partikula salgai duen dendatxo zaharra
egunkarien labekada berria
ale bat erosi dut bertoko hizkuntza ulergaitzean.

Egunkaria galtzarbean
azokako lurrinak dastatzen galdu naiz
eroso
harik eta ase naizen arte.

Aulki lohitu batean kamuflatzen ahalegindu
egunkaria zabaldu
orriak banan-banan pasatu
eta nazioarteko atalean pausatu naiz.

Portugal suteak jota
Protestak Turkian eta Polonian
Siriako su-etena kolokan
Yemen: Munduaren inoizko krisi humanitariorik handiena.

HURRENGO BATEAN

Ljubljana txirrista eta zabu bako haur parke jostagarriagoan
elkartu gaituzte gure umeez
ezaguna egin zatzaizkigute elkar ez ezagutu arren
eta gure umeez hizkuntza desberdinez berba eginagatik ere
elkar ulertu dute.

Txirrista eta zabu bako haur parke jostagarriagoan
elkartu gaituzte gure umeez
haiek ez bezala nahi bano gutxiago mintzatu gara
ez dugu hizketa gaia zuritserik izan itzuleragatik
mamiak hurrengo batean izan beharko du.

Hurrengoan teilatu batean jesarrita
bertoko ekoizpen txikiko garagardo bat eskuan izan dadila
langile etxebizitza garaian teilatu gris karratuak
erdiguneko eraikinen teilatu laranja hirukietan itsasoratzen ikusteko.

Hurrengoan dragoiak alde batera utzita
izar gorri bilakatu zen zure birraitonarena
eta langileen mendeko fabrikaren ukabil
bihurtu zen zure amamarena izan daitezela.

Hurrengoan arimarik gabeko merkantzien museoak baztertuta
Metelkovako poztasun autogestionatuarena izan dadila,
sormen eza atxilo bakarra den espetxe askatuan
arteaz bizitzeko, arteaz bizitzeko.

Hurrengoan turismo gidak beharrez
gure gurasoen etxeak defendatzeko izan dadila
Ciril Bergelek itzultitako zubiari esker
nork berean eta nork beretik partekatzeko.

Hurrengoan ibaiertzeko paseo homogenizatzaileak gomendatu beharrez
ibaitik taula gainean arraun egiteko izan dadila
zubipeetatik ertzak ezagutzeko
Google mapseko perspektibari estoldetatikoa eransteko.

Txirrista eta zabu bako haur parke jostagarriagoan
elkartu gaituzte gure umeei
haiek ez bezala nahi baino gutxiago mintzatu gara
ez dugu hizketa gaia zuritzerik izan itzuleragatik
mama hurrengo batean izango da.

SARTALDERANTZ
ITZULERAKO BIDETIK

Bidaiatzea itzultzea da
GABRIEL GARCIA MARQUEZ

BIDEKO BIDEAK

Bideko bide eratuak,
atzo eta gaurko kolonoentzat bideratuak.

Bideko bide lerratuak,
zabalak izan badaitezke ere gehienetan errailek estutuak.

Bideko bide erratuak,
bide orri gehiegi bezala gutxitan direnak konponbideak.

Bideko bide erantziak,
estuenak bezain zabalenak diren bazterreko bideak.

ESATARIA

Irratia piztu dut
pilotukidearen jesarleku hutsean eseri
eta hizketan hasi zait esataria:

Zoritzarrekoa
behin
bidaia luzea egiteko
zortea izan duena;
bera eta bere bestearen arteko dialektika piztu duelako.

Zoritzarrekoa
behin
bidaia luzea egiteko
zortea izan duena;
hemendik aurrera
bidea duelako bide bakarra.

Esatariak alde egin eta musika jarri du:
Chopinen nokturno bat.

XEHEA EDO LARRIA

Bazterreko bideetan toponimoak

letra xehez idazten dituzte.

Bide bazterretan antroponimoak

letra xehez idazten dituzte.

Baztertuen bideetan

singularra ardatz den horietan

plurala lehenesteko

izen arruntak dira letra larridun bakarrak.

BI NORANZKO

El mundo se divide, sobre todo,
entre indignos e indignados
EDUARDO GALEANO

Orroak nonahi adi daitezke
gerturatuko dira
badatoz
itsasoz
lurrez
airez.

Kapitalaren armada ahalguztidunekoak
kontainerrez koloreztatutako munizio ontziak
atoi bikoitzeko hornidura kamioiak
turistaz betetako miliziano hegazkinak.

Orroak nonahi adi daitezke
gerturatzen ari dira
badatoz
itsasoz
lurrez
airez.

Irregularrak emanagatik
erregulartasun handiko zikloak
behin eta berriro inposatuz datoz.
Bidean aurkituko ditugu.

Orroak nonahi adi daitezke
gerturatzeaz daude
badatoz
itsasoz
lurrez
airez.

Noranzko bakarreko bazter gutxi dago
mundua noranzko bikoitzekoa da
zapaldutako galtzada
honen modukoa.

MILANO-TORINO

Milanotik Torinorako bidean
orain lau hamarkadako
langileen orroak entzun ditut
gure autokarabanako FIAT motorretik askatu nahian.
Baina horrenbeste denbora igarota
den-dena nahi al duzue oraindik, Alfonso?

Laster
Torino pasatuko dugu,
adituko al dituzte orduan
Nanni Balestriniren
ikusezinen orroak
karrozeriaz bestalde?

TORINOKO ILARGIA

Ilargi bete zero Torinon.
Storniren argizagi bidaiariak
Salgariri eta Paveseri ere
heriotza,
maitasuna,
misterioa,
hiru hitz mitikoak
esango ote zizkien
gau tragiko horietan?

TUNELETIK

Ez dut atera nahi,
ez dut atera nahi
goiko teilatuaren antitesia den
erraietako tuneletik.

Ez dut atera nahi,
ez dut atera nahi
min ematen didan
inkomunikazio errainuetara.

Ez dut atera nahi,
ez dut atera nahi
zilegitasuna zilegi izateko
zaila den legezkoatasunera.

Ez dut atera nahi,
ez dut atera nahi
harrapariak antolatutako
sasi jokoetara.

Ez dut atera nahi,
ez dut atera nahi
ahulenak kolpatzen dituen
sarraskijaleek harrotutako itsasora.

Ez dut atera nahi,
ez dut atera nahi
nire tunel ilun bezain bakartitik
baina...

BIDESARIA

Xukritarren herriko autotzar gobadadunak
bestetasunaren samak zapalduta
ia bat egiten du asfaltoarekin.

Ezkerreko errailetik narras
doi-doi aurreratu gaitu
ailegatzeko irrikak bultzatuta.

Autoaren gaineko parrillan
metropoliari idokitako ongizatearen zati bat daramate
aspaldi ibilitako izuen gordelekuen bidearen aurkako noranzkoan.

Pitika-pitika aldentzen joan zaigu narrasti konkorduna
harik eta autobideko ordainlekuan
bat egin dugun arte.

Berriro ere
ordaindu behar.
Noiz arte?

TXIRRISTAPEKO MADARIKATUA

Zeren eta gaua geurea baita

PATTI SMITH

Jarduera anitzeko parkean
ikusi zaitut gau urdinean,
errefusatua,
umeez egunez ametsetan legez
jolasteko txinbo ikusgarrietan

because the night belong to us

Beste iheslari poetiko bat izan zaitezke
ontzi hordian itsasoratutako
gazte madarikatua
Rimbaudek egin bezala Marselhan ere hondoa joko duzuna.
Zeu ere beste bat da?

because the night belong to us

Gauerako ere pentsatuak
ematen duten jolas-lekuko
txirristapeko kautxuan
amesgaiztoen kartoi-ohean
kanta-marmarrean hasi zatzaizkit

because the night belong to us

BIDAIARIREN BAT

Kargarik gabe abiatzen omen da
egoaren hegoak bilduta
ahalik eta arrastorik txikiena uzteko bidean.

Ume begiak omen dauzka
txikitasunak handi ikusten dituelarik
eta txikia izanda handi sentitzen da.

Denbora solidotzen omen du
haren eskuen ahurretan hartzean
laban egin ez diezaion.

Inperfekzioak omen ditu xede
Barthesen turistaren arduragabekeria etikoaren pandemiak ohartuta
horizontalean baino ez du bidaiatzen.

Ez omen du itzalik sortzen
eta bere mundua
deseraikitzea lehenesten du.

Ez omen dio ezer zor bideari
ez du atzerriratu behar bidaiaria izateko
bidearekin bat eginez bide bihurtzen da.

Ba omen da
bidaiariren bat
atzerako ispiluan islatzen ez dena.

KAPUSCINSKIREN ERRETROBISOREA

Maparen zirkunzentroa
ongietorri angeluzuzena
azken biribilgunean ziaboga
poztasunak eta tristurak gogo orekatzen dabilzkit.

Ispiluko begien biribil artean irakurri dut
dagoeneko desberdina naiz
bizitako bideak mamiberritu nau
bestelakotu gaitu.

Atzerako ispilutik begiratu dut
ibilitako bideari eskerrik asko esan nahian
baina jada ez dago
oroimenak irentsi du.

Irudiak, lekuak
pertonak, bizipenak
marren alde batekoak
ala beste aldekoak.

Atzean utzitakoan bidea desagerrarazten zuen
Kapuscinikiren erretrobisorea zuzen zebilen
geografia nozio subjektiboa da
akordio antzeko bat.

AZKEN HITZAK

Ene, Julio, zein gutxi iraun duen bidaiak...

Ksomopistako Autonautak

CAROL DUNLOPEK JULIO CORTAZARRI

ITZULERA

Etxera bueltatzen naizen bakoitzean
berdeagoak dira zure mendien hegoak;
itzultzen naizen bakoitzean
freskoagoak dira zure lotsaren gerizpeak.

Etxera bueltatzen naizen bakoitzean
gorriagoak dira zure borroken afixak;
itzultzen naizen bakoitzean
bihurriagoak dira zure sentipenen sustraiak.

Etxera bueltatzen naizen bakoitzean
biziagoak dira zure betiko begiradak;
itzultzen naizen bakoitzean
zabalagoak dira zure irribarre ausartak.

Etxera bueltatzen naizen bakoitzean
beroagoa da zure elkartasun ohea;
itzultzen naizen bakoitzean
zaporetsuagoak dira zure plazetako txokoak.

Atzera etortzen naizen bakoitzean
ederragoa zara;
harik eta zurrunbiloaren tanta amilduek
zuritzen zaituzten arte.

Mila esker

Mikel Etxaburu Osari, Malen Amenabar Larrañagari, Ruben Sanchez Bakaikoari,

Ibon Zubiela Martini, Gotzon Barandiaran Arteagari, Leire Lopez Ziluagari eta,

bereziki, nire bidaide Eunateri.